

Gernikako udako liburutegiak 'arrakasta handia' izan du

Udalaren arabera, irakurleek iaz baino %25 liburu gehiago mailegatu dituzte.

Gernika-Lumo. 'Irakurtzeko ohiturari bultzada bat emateko' uztaillean zehar prestatu zen Udako Liburutegiak erantzun ezin hobeia izan duela adierazi dute Gernika-Lumoko Udaletik. Izan ere, mailegu kopuruak 'izugarritzko hazkundera izan du', jakinarazi dute.

Arduradunek gaineratu dutenez, Udako Liburutegia Foru Enparantzan kokatu izana -Kultur Etxearen aurrean egon da- 'erabakigarria izan da jendea liburutetara erakartzeko'. Irakurle maileguari dagokionez, %25 igo dela adierazi dute.

Baina ez dira bakarrik liburuak izan jendearen esku, ikusentzunezko gaiak ere egon dira maileguan hartzeko. Honela, ekimeneko arduradunek adierazi dutenez, 'hauen kopurua da gehien igo dena'.

Honela, datu orokorreari begira, 2007tik hona maileguen kopurua bikoiztu egin da. '2007an ikus-entzunezko hamalau mailegu egin ziren, eta aurton, aldiz, eta bakarrik abuztura arte, kopuru hau 469 aleraino igo egin da'.

Udal liburutegiaren 'arrakasta' ikusirik, datorren urtean ere antolatuko dela adierazi dute ekintzaren antolatzaileek. >j.g.